

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Horrela banatzen dira gure enpresaren funtsezko jarduerak:

1. **Arropa Bilketa eta Harrera:** Trukatzeke interesa duten pertsonak ekarritako arropa jaso eta egoera ona dutela ziurtatzen dugu. Hau da, bakarrik garbituta eta erabilgarri dauden arropak onartzen ditugu.
2. **Arropa Hautaketa eta Katalogazioa:** Jasotako arropa mota, tamaina, eta estiloen arabera sailkatzen dugu. Honek truke prozesua arintzen laguntzen du eta bezeroentzako erraztuta dago eurentzako arropa egokia aurkitzeko. Adibidez, arroparen neurriak bereizten ditugu eta multzo ezberdinetan jartzen ditugu: XS, S, M...
3. **Trukaketa sistema bat ezartzea:** erabiltzaileek arropa ekartzean puntu edo kredituak lortzen dituzte, eta horiekin beste arropa batzuk hartu ahal dute. Gure kasuan, arropa bat trukatzeko kreditu bat lortzen dute bezeroek eta 10 kreditura heltzean, arropa bat dohain hartzeko aukera dute .
4. **Erakusketa eta Erakargarritasunaren Antolaketa:** Dendako arropa erakargarria da, erabiltzaileek estilo eta aukera anitzak aurkitzeko. Denda, dena modu egokian antolatuta dago.
5. **Komunitatea eta Ekintza Bereziak:** Tailerrak, moda jasangarriari buruzko hitzaldiak, edo ingurumenari buruzko ekitaldietan parte hartzen dugu. Gure hitzaldiak pertsonak ingurumenari buruz kontzientzatzeko erabiltzen ditugu.
6. **Iraunkortasuna eta Higienea Bermatzea:** Arropa garbi eta egoera onean dagoela bermatzeko neurriak hartzen ditugu. Kasu batzuetan, arropa desinfektatzea beharrezkoa dugu. Eta beste kasuetan, arropa zikina ekartzen badigute ez dugu onartzen.